

Bidaiarien sarrerak %3 eta gualdiak %4 handitu ziren 2007ko apirilean

Urteko lehen lau hilabeteen balantzea eginda, bidaiarien hazkundera %5ekoa izan da eta gualdiena %6koa.

Eustaten datuen arabera, 2007ko otsailean 184.455 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 5.500 gehiagok eta, horrenbestez, %3ko hazkundera izan da. Bidaiarien sarrerak handitu egin ziren Bizkaian (%9); Gipuzkoan ez da aldaketarik izan (%0) eta Araban %6ko jaitsiera izan da, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Estatutik etorritako bidaiarien sarreretan ez dago aldaketarik 2006ko apirilaren aldean, eta atzeritik etorritakoen sarreretan %13ko hazkundera izan da. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da Gipuzkoan eta Bizkaian (%1 bi kasuetan) eta atzera egin du Araban (%-8). Atzeritarren kopurua hazi egin da Bizkaian (%30) eta Araban (%3) eta txikitu Gipuzkoan (%-4).

Estatutik etorritako bidaiarien artean, handitu egin ziren, besteak beste, Andaluziatik, Aragoitik, Kantabriatik eta Balearretatik etorritakoak. Gutxitu egin ziren, batez ere, Kataluniatik eta Madrildik etorritakoak. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Alemaniatik, Belgikatik, Irlandatik, Portugaldik eta Europako gainerako herrialdeetatik; aitzitik, Frantziatik eta Britainia Handitik, batez ere, etorritakoen kopurua, gutxitu egin da.

2007ko apirilean erregistraturiko gualdiak 352.248 dira, hau da, iazko apirilaren aldean %4ko hazkundera eta 13.000 gualdi gehiago. Gualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten Araban eta Bizkaian, hazkundeak %1 eta %10 izan direlarik; Gipuzkoan %2ko jaitsiera izan zen.

Batez besteko egonaldian ehuneko bateko hazkundera dugu. Euskal AE osotara hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldia lehengo urteko apirileko 1,89 egunetik urte honetako apirileko 1,91 egunera pasa da. Araban %6 hazi da, Bizkaian %1 da eta Gipuzkoan %2ko beherakada izan du.

Plazen okupazio mailak %3ko beherapena izan du; aurreko urteko apirilean %51,27koa izan zen eta aurtengoan %49,64koa. Beherapen hori Gipuzkoan (%-10) eta Araban (%-3) gertatu zen; Bizkaian %2ko hazkundera izan zen.

Urteko lehen lau hilabeteetan 580.206 sarrera izan dira Euskal AE-ko hotel-establezimenduetan, %5eko hazkundera 2006ko aldi beraren aldean.

Lehen lauhileko honetako gualdiak 1.067.103 izan dira; %6 gehiago, lehengo urtekoaren aldean.

Nekazalturismoa: Hazi egin dira bidaiarien sarrerak (%5) eta gaualdiak (%21)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 10.791 bidaiari-sarrera zenbatu ziren apirilean, aurreko urteko hil berean baino %5 gehiago: %7 ugaritu ziren Araban, %7 Bizkaian eta %4 Gipuzkoan. Estatutik etorritako bisitariak %5 handitu ziren Euskal AEn: Araban %7 hazi dira, %7 baita ere Bizkaian eta Gipuzkoan %3. Euskal Autonomia Erkidegoan %10 atzerritar gehiago izan da: Jaitsi egin da Araban (%-1), baina igo Bizkaian (%1) eta batez ere Gipuzkoan (%27).

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 34.037 izan dira apirilean, lehengo urteko hil berean baino %21 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan dira Bizkaian (%26), Araban (%23) eta Gipuzkoan (%18).

Bidaiariko batez besteko egonaldia handitu egin zen Euskal AE osoan, 2006ko apirilaren aldean: duela urtebete 2,73 egunekoa izan zen; eta, azken apiril honetan, 3,15koa.

Plazakako betetze-maila %6 hazi zen, hiru lurraldeetan izandako igoeren ondorioz. Araban %9ko hazkundea izan da, Bizkaian %9koa, baita ere, eta Gipuzkoan %4koa.

2007. urteko lehen lau hilabeteetan 28.899 sarrera izan dira Euskal AE-ko nekazal-establezimenduetan, %7ko hazkundea 2006ko aldi beraren aldean.

2007ko urtarrila-apirila denboraldiko gaualdiak 76.892 izan dira; %17ko hazkundea, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	04 2007	%	04 2006	%	Δ %	04 2007	%	04 2006	%	Δ %	04 2007	%	04 2006	%	Δ %	04 2007	%	04 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	352.248	100	338.831	100	4	44.989	100	44.715	100	1	169.260	100	153.529	100	10	137.999	100	140.587	100	-2
Estatukoak	246.528	70	250.073	74	-1	35.056	78	35.812	80	-2	108.802	64	111.838	73	-3	102.670	74	102.423	73	0
Atzerrikoak	105.720	30	88.758	26	19	9.933	22	8.903	20	12	60.458	36	41.691	27	45	35.329	26	38.164	27	-7
Hiriburua	213.912	61	206.331	61	4	33.657	75	33.197	74	1	108.062	64	97.838	64	10	72.193	52	75.296	54	-4
Litoral	43.182	12	42.800	13	1	-	-	-	-	-	15.484	9	16.421	11	-6	27.698	20	26.379	19	5
Barnealdea	95.154	27	89.700	26	6	11.332	25	11.518	26	-2	45.714	27	39.270	26	16	38.108	28	38.912	28	-2
BIDAIARIEN SARRERAK	184.455	100	178.946	100	3	25.686	100	27.181	100	-6	88.408	100	81.386	100	9	70.361	100	70.379	100	0
Estatukoak	130.709	71	131.351	73	0	19.771	77	21.450	79	-8	59.608	67	59.272	73	1	51.330	73	50.629	72	1
Atzerrikoak	53.746	29	47.595	27	13	5.915	23	5.731	21	3	28.800	33	22.114	27	30	19.031	27	19.750	28	-4
Hiriburua	111.949	61	111.581	62	0	18.614	72	19.299	71	-4	55.684	63	53.044	65	5	37.651	54	39.238	56	-4
Litoral	20.566	11	19.984	11	3	-	-	-	-	-	8.599	10	8.642	11	0	11.967	17	11.342	16	6
Barnealdea	51.940	28	47.381	26	10	7.072	28	7.882	29	-10	24.125	27	19.700	24	22	20.743	29	19.799	28	5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,91		1,89		1	1,75		1,65		6	1,91		1,89		1	1,96		2,00		-2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	49,64		51,27		-3	43,54		44,77		-3	49,70		48,53		2	51,94		57,46		-10
Hiriburua	56,37		55,41		2	49,14		48,90		0	58,25		53,27		9	57,53		62,31		-8
Litoral	48,03		50,18		-4	-		-		-	40,01		41,78		-4	54,09		57,36		-6
Barnealdea	39,62		44,14		-10	32,54		36,02		-10	39,29		42,05		-7	42,83		49,98		-14
BETETZE-MAILA GELAKA	58,55		59,64		-2	51,13		52,93		-3	59,57		57,84		3	60,40		65,10		-7
Hiriburua	68,53		64,31		7	58,61		58,07		1	72,50		63,40		14	68,30		69,82		-2
Litoral	51,60		58,65		-12	-		-		-	44,10		48,68		-9	57,28		66,60		-14
Barnealdea	44,89		51,13		-12	34,79		40,51		-14	44,02		49,87		-12	50,56		57,01		-11
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	34.037	100	28.023	100	21	5.718	100	4.658	100	23	11.049	100	8.764	100	26	17.270	100	14.601	100	18
Estatukoak	31.308	92	25.889	92	21	5.336	93	4.339	93	23	10.133	92	8.124	93	25	15.839	92	13.426	92	18
Atzerrikoak	2.729	8	2.134	8	28	382	7	319	7	20	916	8	640	7	43	1.431	8	1.175	8	22
BIDAIARIEN SARRERAK	10.791	100	10.269	100	5	1.821	100	1.705	100	7	3.446	100	3.235	100	7	5.524	100	5.329	100	4
Estatukoak	10.061	93	9.605	94	5	1.692	93	1.575	92	7	3.147	91	2.939	91	7	5.222	95	5.091	96	3
Atzerrikoak	730	7	664	6	10	129	7	130	8	-1	299	9	296	9	1	302	5	238	4	27
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,15		2,73		15	3,14		2,73		15	3,21		2,71		18	3,13		2,74		14
BETETZE-MAILA PLAZAKA	34,06		32,03		6	31,61		29,13		9	32,77		30,09		9	35,89		34,47		4
BETETZE-MAILA GELAKA	38,73		34,76		11	35,92		31,68		13	37,18		32,15		16	40,93		37,74		8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp